



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko apirilaren 29an, **176** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

“Aurrekari hauek ikusita:

Dokumentua	Data/zenb.	Behaketak
Zerbitzuaren proposamena	2020-04-19	
Alkatetzaren eginbidea	2020-04-19	
Idazkaritzaren txostena	2020-04-29	
Alkatetzaren erabakia	2020-04-29	
Aurretizko ikuskatze-txostena «A» eragiketa	2020-04-29	

Dokumentazioa aztertuta, Idazkaritzaren txostena ikusita, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) eta s) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

ZERA XEDATZEN DUT

LEHENA.- "Udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko" diru-laguntzak emateko deialdia onartzea, ebazpen honen eranskinean agertzen den testuarekin.

BIGARRENA.- 3.000,00 euroko gastua onartzea.

Ekitaldia	Aurrekontu partida	Zenbatekoa
2020	412.770.000	3.000,00 €



HIRUGARRENA.- BDNSn sartu beharreko informazioa erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin eta laburpenarekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk deialdiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean jarriko du, argitara dezan. Laburpena argitaratzean, BDNSak deialdiari esleitu dion identifikazio-kodea agertu beharko da.

LAUGARRENA.- Isabel Alonso Andrés udal arkitekto teknikoa izendatzea instruktore.

BOSGARRENA.- Honako erabaki hau udaleko arkitekto teknikoari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko apirilaren 29an.

